

XXI. mendeko euskararen gramatika

SALABURU, Pello

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Euskara Institutua
salaburu@ehu.eus

Hasierako urteak

Gramatika batzordea 1980ko hamarkadaren hasieran abiatu zen lanean, hain zuzen ere urte horretako martxoan, Euskaltzaindiak Hondarribian egin zuen bilkura batean. Hala gauzatzen zen Arrasaten egindako IX. biltzarrean aipatu zen asmo berria. Bide luzea, hortaz, lanean hasi zen hartatik orain artio egin dena. Lehenbiziko Gramatika batzordea 1980ko apirilaren 18an izendatu zuen Akademiak: Pierre Lafitte zen buru; Jean Haritxelar, buruorde; Patxi Goenaga, idazkari eta Maria Pilar Lasarte, idazkariorde. Eta erabakiaren berri ematen duen Euskaltzaindiaren agiriak hitzez hitz dio batzorde lagun izanen direla «Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak» eta «gaur gramatika lanetan sartuak diren beste zenbait ikerleren izenak». Ez zen besterik zehazten: izen horiek ere gaineratu beharko direla, hortaz, aipatu lau lagunei, nahiz nor ziren ez zen espresuki esaten. Orain dela 40 urte inguruko kontuak dira hauek guztiak. Erraz esaten da.

Batzordea berehala hasi zen bilerak egiten, Gipuzkoako Foru Aldundiko Julio Urkijo liburutegi txukunean. Orduan hainbeste jende hurbiltzen zen bilkuretara, batez ere lehenbiziko hilabeteetan. Tartean ziren, noski, Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak, agiriak nahi zuen bezala. Hastean, norabide argirik gabe abiatu ziren batzordekideen eztabaidak: gramatika egin behar zela, behar bezala taxutuko zela, bai, zerbait berria, bai, baina ez zen sobera gehiago zehazten, eta inprobisatze puntu handia gertatu zen hasierako bilera haietan. Gero, 1981ean, Loiolan egin zituen Euskal-

Euskera. 2020, 65, 2. 221-238. Bilbo
ISSN 0210-1564

tzaindiak Barne jardunaldiak, eta han beste izen batzuk zehaztu ziren batzordekide gisa: Patxi Altuna, Alfonso Irigoien, Xabier Kintana, Jose Antonio Mujika, Karmele Rotaetxe eta Rikardo Badiola. Praktikan ez zegoen, hala ere, espero zitekeen bezala eratua: batzordekide ofizial batzuk ez ziren modu sistematikoan joaten bileretara eta, kontrakoa, kideak ez ziren beste batzuk agertzen ziren anitzetan: Lino Akesolo, Miren Azkarate, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Jose M. Larrarte, Pello Salaburu, Jesus Uranga, Adolfo Arejita... Azkenean, dinamika horrek berak finkatu zuen hilabete gutxitan taldearen osaera.

Askatasuna izan zuten batzordekideek gaiak lantzeko orduan, bakoitzak nahi zuen gaia aukeratu eta ekartzen zuen eztabaidara, ibilian hasi eta gaiak landu ahala azkenean gramatika osoak itxura hartuko zuelakoan edo: urte horretako irailean Patxi Altunak, adibidez, inesiboari buruzko lan bat aurkeztu zuen, eta Lafittek beste bat euskal artikuluz. Eta berehala egin zuen Euskaltzaindiak batzordearen lehenbiziko argitalpena, 1981ean: *Gramatika Batzordearen lanak* zuen izena eta eztabaidatzen hasteko gisako koadernoan zen. Honako lan hauek biltzen ditu (tartean aipatu berri ditudan biak):

P. Lafitte: «-a artikulua atzizkia»

P. Altuna: «*Non* Ziburuko Etxeberrigan»

L. Akesolo: «Sintaxi kasu bakantxo bat: *Noren-Zeren* sailekoa. *Ghiris-tinho perfekzionarioaren Pratika* liburua aztertuz»

J. Haritxelar: «Euskararen bi latiboak»

Lan horren argitaratzeak garrantzi handia izan zuen batzordekideei konfiantza emateko, gero eginen ziren lan eta azterketa guztien abiapuntua izan baitzen. Aipatu lan horiek 1980ko iraileko eta 1981eko urtarrileko batzarretan aurkeztu ziren euskaltzainen aurrean. Liburuxka horren aurkezpena Patxi Goenaga batzorde idazkariak sinatua da. Han kontatzen du, historia pixka bat eginez, nola Euskaltzaindiak hasiera eman zion Arrasaten bere IX. biltzarrari 1979ko abenduaren 20an, eta nola 1980ko Pazkoetan («Bazkotan», dio berak, oraingoz batasuna bidean zenez) beste bilera batzuk egin ziren Hondarribian. Hala sortu baitzen Gramatika batzordea, esan bezala, Hondarribian.

Batzordearen eginkizunik nagusiena, «materialeak, langaiak, biltzea zen, geroago, lan horietan oinarriturik, Euskaltzaindiarena izango den Gramatika osatu ahal izateko. Batasun bidean, orain arte ortografian eta morfologian barna ibili gara. Gramatika batzorde hau batez ere sintaxiari lotuko zaio». Gela polit eta ilunkara hartan hasi ziren, bada, batzordekideak eztabaidan, Lafitte zela buru: isilik egoten zen anitzetan, bileratik kanpo balitz bezala, baina, halako batean, eztabaidagairen batek haren atentzioa pitzen bazuen, berehala goititzen zuen burua eta iritzi zorrotza ematen zuen.

Asmoa zen orduan liburuxka hori bezalakoak sortuz joatea: «Ale honekin ematen diogu hasiera batzorde honetara aurkezten diren lanen argitaratzeari». Eta segitzen du: «Azken batean, honelako argitalpen batek izan dezakeen zentzu bakarra honetan datza, hots: eztabaida eta kritika sortzean. Uste dugu, lanak –eta batez ere, geroko lan baten oinarri izan nahi badute– ahoz eztabaidatzea baino hobe dela izkribuz eta arrazoiak emanez kritikatzeko».

Ikusten denez, eztabaidagaiak (unibertsitateetan *working papers* deitzen dena) gisako zerbait sortu nahi zen: «Batzorde honek ateak zabalik ditu lan egin nahi duten guztientzat, behin eta berriro esan dugun bezala. Lan ugariak behar baititugu. Eta lan ugariak esku artean izateko bide bakarra, lan-gileak ere ugari izatea da». Halaxe zioen: ikusten denez, badirudi «anitz» hitz esperpentiko hori sortu gabe zegoela oraindik.

Horiek, hortaz, batzordearen sorrerako kezak. Nik dakidala, hasierako liburuxka horrek –anitzetan gertatzen den bezala– ez zuen segidarik izan, bigarrenekorik gabe gelditu zen. Lehenbizikoa eta azkena. Baina batzordeak segitu zuen eta, pixkanaka, egin behar ziren lanak zehaztu ahala, prozesu horretan lankide taldea mugatuz joan zen, azkenean dozena bat lagun inguru gelditu artio. Gramatika bat idaztea, hori zen helburu nagusia, aurretik eztabaidagai batzuk ongi landu ondoren.

Iruñeko batzarra 1984an

Nahiko fite, Euskaltzaindiak hala eskaturik, batzordeak 1984an Iruñean gramatikari buruz egin behar zen batzarrean aurkezteko bideratu zituen bere

eginbehar eta ahaleginak. Eta aurkeztu ere, Iruñean aurkeztu zen geroztik *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU) deituko zen lanaren lehenbiziko liburukia. Arturo Campi3n omendu nahi izan zen, eta haren gramatika go-goan zuela aukeratu zuen Euskaltzaindiak Iruñeko hiria gramatika berriaren lehenbiziko liburukia aurkezteko toki apropos gisa. Perpaus bakuna aztertzen zuen liburuak. Gero Euskaltzaindiak argitara eman zuen: ordenagailuen garaia ere bere hasieretan zela, testua idazmakinez taxutua agertu zen liburu dendetan lehenbiziko edizio hartan, goitiago aipatu dudan liburuxkarekin ere gertatzen zen gisan. Eskuz eginak biak, hortaz. Ez zen orduan, jakina, corpus elektronikorik eta holako gauzarik, eta OEH ere bidean zen oraindik. Holako guztiak geroagoko lanak baitira.

Hasierako liburuki horrek bi atal nagusi ditu, modu sistematikoan bi urratsetan landuak: izen sintagma eta aditz sintagma. Eta «urrats» hitza ere hautatu zuten batzordekideek, Patxi Altunaren proposamenari jarraiki, izenburuan paratzeko: *Lehen Urratsak*. Batzordea ongi ohartzen baitzen lana handia izanik ere, hasierako zerbait baizik ez zela, interesatuen artean eztabaida piztu nahi zuena, eta hala aurkeztu nahi izan zuen. Lan hura, batzordekideek berria sentitzen bazuten ere, ez zen hain berria: gai haiek behin eta berriz azertuak izanak ziren aitzineko gramatikan, eta batzordeak aurretik esandakoa bildu eta sistematizatu nahi izan zuen. Ez zen hori, hala ere, lan txikia izan. Ordu asko sartu behar izan ziren: batetik, aurrekoa bildu eta ahalik eta modu koherenteenean aurkezteko. Besteak beste, horrek terminologia egokitu eta lantzea ere eskatzen zuen, gramatikak ez baitzetozen bat kontu horietan ere, eta, gainera, hemendik kanpo egiten ziren lanetan beste mota bateko terminologia erabiltzen baitzen.

Merezi du zerbait esatea lana egiteko moduez ere, sistema hori erabili baitu batzordeak EGLU guztietan urte luze hauetan zehar. Behin eskema egin ondoren, gaiak sailkatu eta batzordekideen artean banatzen ziren. Gehienetan norik gogokoen zuena hautatzen zuen, erosoago sentitzeko. Hola, bakoitzak bere txostena prestatzen zuen eta idatzirik ekartzen zuen bilerara. Testua denen artean banatzen zen, eta txostena prestatu zuenak lerroz lerro irakurtzen zuen batzordekideen aitzinean. Bileretan eztabaida luzeak sortzen ziren, etengabeak... zerbait adostu eta ontzat eman artio. Ez zen gutxitan gertatzen adostutako hori berriz ere zalantzan jartzea hurrengo

bilera batean beste batzordekide batek ekarritako txostena eztabaidatzen zelarik. Kontraesanak behin eta berriz sortzen ziren. Eta batzuetan paragrafoa, edo gaiaren ataltxo hori kentzea erabakitzen zen. Batzordekideen artean beti bazen norbait, halakoetan, Altuna zenaren esana gogora ekartzen zuena, zerbait kentzea erabakitzen genuen bakoitzean: «Cuánto se *avansa* cuando se *presinde*». Lehenbiziko irakurketa egin eta eztabaidatu ondoren, batzordekideak berregin behar zuen testua, eta bigarren idazketa bat aurkeztu. Zenbaitetan, hirugarrena ere. Berriz ere sortzen ziren eztabaidak. Prozedura hori neketsua zen, idazketa ikaragarri luzatzen zuen, baina nahia-go zuen batzordeak hola lan egin, handik emaitza egokiagoa aterako zela-koan. Urte luzeak behar izan ditugu azkenean zazpi liburukiak eta eranski-nak bukatzeko, baina merezi izan du.

Azkenean, epeka bezala argitaratuz joan diren EGLUren zazpi liburukiak –azkena 2011n argitaratua–, eta bestelako gehigarri batzuk, aski ezagunak egin dira euskararen erabiltzaileen artean, eta erreferentzia bihurtu dira. Urte luze hauetan zehar Euskaltzaindiaren babesak, laguntzak, arnasak eta errespetuak egin du posible EGLU gisako lan bat aurkeztu ahal izatea.

Bide luzea

Zeren lehenbiziko liburu hark bigarrenari ireki baitzion bidea: 1984-1987 urteen artean landu zen aditza, bigarren liburukiko gai nagusia. Batzordea aditzen sailkapen eta deskribapena egiten saiatu zen, paradigmak ematera bakarrik mugatu gabe. Sailkapen formala egin zen, eta erabilera ere puntu askotan ongi deskribatu zen. Forma aldetik, interesgarria izan zen laguntzaileen paradigmak aurkezteko modua, adizki jokatuerei dagokienez: *da*, *du*, *dadin*, *dezan*... balio «bereko» adizkiak dira. Desberdintasunak? Lau aditz ditugula: *izan*, **edun*, **edin* eta **ezan*. Hori batetik. Lehenbiziko biak indikatiboko formak, bigarrenak subjuntiboan erabiliak. Ez zen hori hala esaten, hitz horiekin, sistematizazio formal hutsa baitzen, neurri batean, han egiten zena: batzuk *-n* gabe ager daitezke (*da*, *du*), besteek *-n* behar dute amaieran (*dadi-n*, *deza-n*). Baina desberdintasunak hola agertzeak badu abantaila handia, itxuraz hain konplexua dena aski sinplea den eskema argi

batean biltzen baita. Sistematizazio hori, gainerako adizkiekin ere erabilia, biziki adierazgarria gertatu zen EGLU-II liburukian. Ezaugarri formal batzuen bidez esplikatzeko dira aditz sisteman eratzen diren oposizioak. Hori eginez terminologia ere aldatu behar izan zen, aitzinetik erabiletan nekez kokatzen baitzen sistema berria. Dena den, puntu honi dagokionez, terminologiari dagokionez, egia da han egin ziren zenbait proposamenek (adibidez, *denbora* eta *tempusa* bereiztea) ez dutela gerora arrakasta gehiegi izan. Baina liburuan nahiko ongi azaltzen dira sailkapen formala, batetik, eta erabilera, bestetik.

Hamarkada horren azkeneko bi urteetan, 1988-1990, eta behin perpaus bakunaren azterketa amaiturik, gai berri bati ekin zion batzordeak: zer gertatzen da perpaus horiek diskurtsoan eratzen ditugunean?

Eztabaidak gertatu ziren batzordean, diskurtsoaren koherentzia zaintzen duten elementu horiek aztertzeko orduan: lokailu deitu zituen batzordeak (EGLU-III). Gaiak zerbait esatea ezinbestekoa ikusten zen, azterketa hori ez baitzen euskaraz egina aurretik, modu sistematikoan bederen, eta beharrezkoa ikusten baitzen han-hemenka esandakoak (askotan hiztegieta, edo lan laxoetan) biltzea, ordenatzea eta argibide batzuk eskaintzea. Gainera, inguruko hizkuntzetako gramatiketan ere hasiak ziren holako lanak lantzen. Baina, bestetik, batzordeak ikusten zuen gai hau perpausaren analisitik (perpausak markatzen du gramatikaren muga) urrunago doala. Hizkuntzan garrantzi handia dute lokailuek, baina, arrazoi askogatik, printzipioz gramatikaren muga naturaletatik urrunago daude. Hola, *Beñat etorriko da* diogunean, bere horretan azter daiteke perpaus hori, eta hor gertatzen diren gramatika erlazioak ondo azal daitezke «kanpora» jo gabe. Jakina, bistan da *Beñat* nor den identifikatu behar dugula, eta zerbaitek (hiztegiak) azaldu beharko digula *etorri* horrek zer esan nahi duen («hitz egiten duenaren tokira joan»). Baina hori ez dagokio zuzenean gramatikari, baizik hizkuntzari: gramatikaz gain, beste osagai askok hartzen baitute parte *hizkuntza* (gizakiok dugun gaitasun biologiko hori) deitzen den horretan. Perpaus horren ordez *Bingeli ezkletuko da* esaten badugu, berdin-berdin azal daitezke perpausaren barneko gramatika erlazioak, nahiz ez jakin nor edo zer izan daitekeen *Bingeli* eta zer izan daitekeen *ezkletu*. Badakigu *Bingeli* subjektua dela, eta ez datiboa, esate baterako. Baina *Bingeli ezkletuko zaio* entzuten badugu, bada-

kigu *Bingeli* datiboa dela. Gramatika aldetik gardenak dira bi perpausak. Baina ez dakigu zer esan nahi duten. Jo dezagun, hala ere, beste perpaus hau dugula: *Beñat, bederen, etorriko da*. Euskaldun orok ulertzen du hori. Baina, perpaus horretan, nola azaldu *bederen* hori zer den, perpausetik «kanpo» jo gabe? Zein dira hitz horren harreman gramatikalak perpausaren dauden gainerako elementuekin? Horregatik sortu zen eztabaida batzordean. Baina azkenean aurrera jotzea erabaki zen: gaiak interesa zuen, eta azalpen horiek baliagarriak gertatuko ziren testu idazketan jarduten zutenentzat. Diskurtso mailako lotura horiei, diskurtso markatzaileei, eskaini zitzairen hirugarren liburukia: EGLU-III.

Perpaus elkartuen atal bat, juntagailuena, landu zen 1991-1994 urteetan (EGLU-IV). Perpaus elkartuen gaiak lan sakonagoa eskatu zion batzordeari, eta batzordekideek ordu luzeak eman zituzten gai horren lantzen. Junta-dura, adibidez, orduraino inoiz egina ez zen bezala ikertu zen. Egia da lan egiteko baliagarriak ere aldatzen hasiak zirela, eta OEHko datu basea ere erabil genezakeela. Horrek asko erraztu zituen gauzak: edo, erraztu beharrean, esan dezagun garantia eta berme handiagoa eman zela batzordearen lanei. 1993an argitaratu zen *Euskal Gramatika: Perpaus Bakuna* liburua ere.

Handik urte batzuetara, 1999an, mendeko perpausari eskainitako lehen liburukia argitaratu zen (EGLU-V). Liburukiaren zirriborroa urte bat lehenago aurkeztu zen interesdunen aurrean, Euskaltzaindiak Areatzan egin jardunaldietan. Jendeak han egindako oharrak jaso zituen batzordeak, eta testuan integratu. Pixkanaka, gramatika beste itxura bat hartzen ari zela argi ikusten zen. Gaiak gero eta landuago ageri ziren, testuaren arazoibidea adibide anitzekin hornitzen zen, puntu eztabaidagarriak agerian uzten ziren. Rudolf de Rijk hizkuntzalari holandarrak urte hartan EGLU-I liburuari egin zion kritika zorrotza ere aski baliagarria izan zuen batzordeak aurrera begira nondik jo zehazteko.

Lehen liburuki horren ondotik beste bi etorri ziren: 2005ean EGLU-VI eta 2011n EGLU-VII. Azkeneko hiru liburuki horietan biltzen dira mendeko perpaus guztiak. Lana gero eta xeheago, liburuak gero eta trinkoago, liburu bakoitza argitara emateko gero eta urte gehiago. Tartean beste material batzuk ere argitaratu ziren: 1987an EGLU-I liburua eranskina (hitz

ordena eta *-ko* atzizkia ziren gaiak) eta 1988an lehenbiziko bi liburukien gai aurkibidea biltzen zuen eranskina).

Egoera aldatu da

Ikusten denez, 1980ko hamarkadan hasi eta ondoko urteetan ere segitu du lanean batzordeak, gorabeherekin, jakina: batzuetan lan hori joriagoa izan da, orduak eskatu ditu, eta beste batzuetan erritmoa ere apaldu eta moteldu da pixka bat. Kontuan izan behar da batzordea osatzen dugun kideok kanpoan egiten dugula lan, ez Euskaltzaindian, eta kanpoan egiten den lan horren aztergaia gramatika bada ere, ezin izan dugula zenbaitetan nahi genukeen adina ordu sartu egitasmo honetan. Bestetik, urte luze hauetan batzordea bera asko aldatu da: kide batzuk joan dira, beste batzuek erretiroa hartu eta bizitza beste begi batzuekin ikusten hasi dira, jende berria sartu da... Hasierako batzordea eta oraingoa ez dira, hortaz, izenaz baizik berdinak, kideei dagokienez. Zernahi gisaz, esan behar da lan egiteko sistema, hala ere, nahiko egonkorra izan dela urte hauetan guztietan.

Ez hori bakarrik: ikerketa eta lan akademikoa egiteko baldintzak ere gaineretik beheiti aldatu dira. Garrantzi handia du horrek. Hasierako urte haietan, hizkuntza kontuetan, ia Euskaltzaindia zen erreferentzia bakarra. Elizako gizonetan eta –neurri batean bederen– autodidaktismoan oinarritzen zen euskal Akademia. Aipatu dudan lehenbiziko liburuxka (*Gramatika Batzordearen lanak*) horren egileak hiru apaiz dira, eta laiko bat, Haritxelar, unibertsitate mundutik zetorrena. Nahiko argazki adierazgarria da hori. Gaur egun argazkia bestelakoa da.

Egun, orduan ez bezala, inoiz baino jende gehiago ari da lanean euskarekin, eta hizkuntzari buruz euskararen erabiltzaileok ditugun ikuspuntuak aberatsago eta funtsatuagoak dira. Erreferentzia bakarra ez, gaur egun euskaldunok anitz erreferentzia ditugu inguruan, gizartea bera hainbeste aldatu baita. Aldaketa honen ideia txiki bat datu honek eman dezake: Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zenetik, aipatzen ari garen urte hauek baino pixka bat lehenago, 350.000 tituludun baino gehiago atera dira erakunde horretatik. Eta hor gehitu behar dira Deustuko Unibertsitatetik eta gainerako uni-

bertsitate zentroetatik atera diren guztiak. Gaur egungo euskal gizartea ezin da ulertu datu horiek kontuan izan gabe. Horrek ondorioa izan du euskararen ere: gaur egun UPV/EHU ezinbestekoak diren ikasgaien % 97 euskaraz egin daiteke.¹ Euskara ez da komunikazio hizkuntza bakarrik, euskara bera, esan nahi baita, hizkuntza bera, unibertsitateko ikergai bihurtu da.

Bada, urte horietan jarri ziren abian Deustuko Unibertsitatean euskal filologiako ikasketak, eta handik gutxira Euskal Herriko Unibertsitatekoak ere. Hainbeste urte horietan milaka jende formatu da unibertsitateetako geletan. Horrek euskal hiztunen erreferentzia guztiak aldatu ditu, eta horregatik Euskaltzaindiaren presentzia ere indarra galduz joan da, hizkuntza akademiak dituzten gizarte guztietan gertatzen den moduan. Ez da hori bakarrik: gaur egun euskarak irakaskuntzaren maila guztietan eta jakintza arlo guztietan du indarra; euskararen historia osoan baino gehiago eta hobeki idazten da; itzulpen asko egiten dira, literaturan eta gainerako esparruetan; literatura lanak argitaratzen dira; terminologia berezia eskatzen duten arloak lantzen dira; doktore tesi andana bat ere badugu, jakintza arlo guztietan; hemengo ikasle anitz kanpora joan da espezializatzeraz; komunikabideetan hogeita lau orduz entzun daiteke euskara, ongi prestatutako kazetariei esker eta abar. Eta, horren ondorioz, inoiz baino lan eta testu masa handiagoa dugu eskura, corpusetan bildua. Ez da gutxi hori. Euskararen argazkiak, 1980koa eta oraingoa, aski diferenteak dira.

Lan akademikoa egiteko modua ere aski desberdina zen. Hasiera hartan, euskaltzaleek bere buruaz fidatu behar zuten maizkara, edo noizbait lapitz batekin egindako esku-fitxa batzuetan kontsultatu behar zituzten zalantzak: «Halakok hola esaten zuen, eta halako liburuetan hola idatzi zuen». Egoera horretan landu zituen batzordeak lehenbiziko bi liburukiak, lanabes biziki mugatuak zituela. Euskarri informatikoei dagokienez, EGLU-IIItik aurrera hasi zen batzordea lanean Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) testu klasikoen oinarrizko corpus bat antolatu eta CD batean eskuratu zionean. Han hasi ziren txostengileak lehenengo aldiz kontsultak modu sistematikoan, nahiz aski mugatuan, egiten.

¹ Datu hauek Nekane Balluerka errektoreak Forum Europa delakoan 2019/03/14an emanak dira.

Gaur egun gauzak biziki aldatu dira, eta ordenagailuaren sagutxoarekin egin daitekeen klik batek bat-batean irekitzen du euskal testuen munduaren ikuspegi zabala: milaka adibide bistaratzen dira, garai guztietako idazleek idatziak. Iturri aberats horretatik edan daiteke gaur egun, orduan ez bezala. Eta testu idatziak ezinbestekoak dira holako lan batean esaten direnak funtsatzeko. Babesa ematen dute, batez ere oraindik arlo anitzetan ongi finkatu gabe dagoen hizkuntzaren azterketan ari garelarik.

Urte horietan guztietan, batzordeak beste zeregin batzuk ere izan zituen. Euskaltzaindiari egiten zitzaizkion anitz galdera, zalantzak zirela eta, Gramatika batzordeak erantzuten baitzituen. Batez ere Jagonet-eko kontsulta zerbitzutik zetozkion batzordeari galderak. Gero, galdera horietaz eta emandako erantzunez baliatu zen Euskaltzaindia arau proposamenak egiteko ere.

2011z geroztik: Euskararen Gramatika

2011n, EGLU guztiak bukatuak zirela, berriz ere hasi zen batzordea pentsatzen nola hobetu eta gaurkotu lana. Batetik, bistan da, eman diren arrazoiengatik, liburuki guztiak ez ziren lanabes homogeneousekin landuak izan: lanak aurreratu ahala etxeko ordenagailuen erabilera areagotu zen, OEH-ren liburukiak eskura jarri ziren, corpusak gero eta handiago eta aberatsago ziren, euskal hizkuntzalaritzan sartutako ikertzaile gazteak sintaxiaren eta gramatikaren inguruko puntu zehatzak ikusmolde berriarekin hasi ziren lan-tzen... Beraz, egoera aldatzen ari zen lastertasun handiz.

EGLU osoak batasun handiagoa behar zuen. Eta horri ekin zion batzordeak: definituz, lehenik, argitaratutako liburuetan zer aldatu behar zen, zer hobetu, zer zuzendu, zer beste modu batera azaldu. Eta zehaztuz, aldi berean, zein ziren ukitu gabe geldituak ziren atalak, edo zeinek behar zuten sakontasun handiagoa. Hori definiturik, eskema luze bat prestatu zen, behin eta berriz eztabaidatu eta aldatu zena. Eta, ondoren, eskema horren edukia osatzen hasi ziren kideak.

Beste hizkuntza batzuetan (une hartan batez ere gaztelera, katalana eta gallegoa genituen buruan) prestatzen eta argitaratzen ari ziren gramatiken

pareko zerbait egin nahi genuen. Edo, guztiz parekoa ez bazen ere (kontuan izanik baliabideak, gramatika ikerketen tradizioa eta abar ez direla inondik ere pareko) ere, bai, gutxienez, zerbait homologagarria. Horrek eskatzen du datuak biltzea, bai, baina datu horiek gutxienerako marko teoriko baten barenan ibiltzea. Nekez egin daiteke gramatkarik egun *sintagma*, *flexioa*, *ergatibitatea*, *aditz inergatiboak eta inakusatiboak* (izen horrekin edo beste batekin), *argumentu sarea*, *osagarri*, *adjuntu* edo *buruaren kokagunea*... eta horien gisako kontzeptuei buruz erreferentziarik egin gabe. Edo, nahi bada, horiek aipatu gabe ere egin daitezke gramatikak. Baina ez dira inola ere homologagarriak izango. Gramatikaren deskripzioak egitura teorikoa behar du, gauzak ez baitaude ikertzaileen artean orain dela berrogei urte bezala.

Euskararen Gramatika hau idazteko ez da EGLU idazteko erabili zen metodologia bera baliatu. Orduan, atalak banatu ondoren, kideren batek idatzi txostena mahaian uzten zuen, eta bizpahiru aldiz (baten batean lau aldiz ere) eztabaidatzen zen denen artean, lerroz lerro, hitzez hitz, goitiago argitu dudak gisan.

Orain ez da prozedura bera erabili. Oraingoan txostengile bakoitzak askatasun handiagoa izan du, zentzu batean bederen: testuak ez dira gainerako kide guztien aurrean xeheki irakurri, orduan bezala. Txostengileak, testua kide guztien artean banatu ondoren, denen aitzinean azaldu du idatzitakoa hitzez, zalantzak izan dituen puntuak eztabaidatzeko bereizi ditu, eta azkenean besteren oharrak idatziz jaso ditu. Ez da esan beharrik kapitulu guztiak denen artean eztabaidatuak izan direla, eta kide guztiek izan dutela aukera langaiak sakon eztabaidatzeko. Baina prozedura arinago gertatu da oraingoan, aurrekoetan egiten ziren horrenbesteko txosten bertsioren joan-etorriak laburturik.

Azkenean, zer egin, zer kendu, zer aldatu, zer osatu... prozesu horrek beste emaitza bat ekarri du esku artean duzun gramatika hau eta EGLU elkarren artean konparatzen baditugu.

Badira atal oso-osoak guztiz berriak, aurrekoan ageri ere ez zirenak. Adibidez, lehenbiziko bi kapituluak: *Euskararen bereizgarri orokorrak* eta *Perpau-sa: sintagma* *zer diren*. Edo hamaikagarrena: *Gramatika* Kategoriak.

Badira EGLUn esandakoarekin erkaturik errozko zuzenketak egin eta guztiz berrituak aurkezten direnak: *Morfologia* inguruan eratu ditugun sei kapituluak, *Izena*, *Adjektiboa*, *Adberbioa*, *Hitz ordena: Informazio egitura* eta abar. Kapitulu horiek ere, neurri handi batean, guztiz berriak direla esan daiteke.

Badira EGLUn esandako zenbait gauza hain aldaketa sakonak izan ez dituztenak. Egia da berridazketa berria dutela, beste modu batera ordenatu ditugula eta abar, baina, neurri batean, menderakuntzaren kontuak azaltzeko orduan ez dugu hain aldaketa nabarmenik egin.

Badira, segur aski, ikerketa gehiago behar luketen atalak ere: aditzarena, adibidez, bat aipatzeagatik. Aditzaren ezaugarri batzuk tesi berezietan aztertu izan dira, baina badira beste puntu asko azterketa xehegoa merezi dutenak, segur naiz. Berez, hizkuntza baten gramatikaren azterketa ez da inoiz ere amaitzen, eta puntu bat argitzeak berarekin batera dakar puntu horri buruzko galdera gehiago sortzea. Gramatikaren gaia, batzuek uste dutenaren kontra, ez da inoiz ere agortzen. Hori gertatzen da jakintza arlo guztietan.

Baina EGLUrekin konparatuz, lan hau beste zerbait da. Bai formaz, eta bai edukiaz. Formaz, hemengo orrialde hauek EGLUkoak ez bezala, aise trinkoagoak baitira. Orrialdeak bete-betea ageri dira, tarte gutxirekin, eta adibideak ere lerro artean daude gehienetan. Irakurlea ohartuko da sarritan lan honek gai honetaz edo hartaz kontsultak egiteko balioko diola, dena hasieratik amaitu arte segidan irakurtzeko baino gehiago. Horregatik, dei gurutzatu asko egin dira, irakurlea atal batetik bestera bidaliz eta erreferentziak emanez. Eta arrazoi beragatik, kontu batzuk laburturik errepikatzen dira han-hemenka, irakurketa autonomoagoa gerta dadin.

Aurreko EGLU liburukiak bezala, gramatika honek ere baditu bi ezaugarri azpimarratu behar direnak: zuzenean hartarako egin ez bada ere, neurri batean bederen gramatika arauemailea da. Ez arauak ematen dituelako: Gramatika batzordea ez da nor arauak emateko, hori Osoko bilkurari baitaigokio, esan nahi baita, Euskaltzaindiari berari, eta ez batzorde bati. Baina testuan Euskaltzaindiak eman dituen arauak biltzen dira, aztertzen den gaiarekin zerikusirik baldin badute, eta bestela ere idaztanka mota bat hautatu da, lehenatasuna eman zaie hautu batzuei, kontu batzuk azpimarra-

tu dira besteen gainetik. Horregatik, iturria izan daiteke arau berriak proposatzeko, betiere komenigarria bada arauak proposatzea, jakina, idazle eta irakasleen artean beti gertatzen baita halako tentsio pertsonal bat, zenbaitetan arauen beharra sumatuz eta beste zenbaitetan arauen gehiegikeria ikusiz. Gramatika deskriptiboa da, zintzotasunez egin nahi izan da hori, baina aldi berean irakurleari norabide jakina markatzen dio. Hori guztia, batetik.

Bestetik, hau da bigarren ezaugarria, batzordeak lan irekia aurkeztu nahi du, interesa izan dezaketenen artean eztabaidatua izan dadin. Betiere, aurrera begira, jendearen ekarpenak eskuratzeko prest dago batzordea, ezingo litzateke beste modu batera izan.

Edukiari dagokionez, esan bezala, hemen material gehiago dago eta gai berriak ere ukitzen dira. Terminologia dela eta, zenbait terminoren egokitu beharra ikusi da. Adibide batzuk emango ditut:

- *Sintagmen eraketa* eta *burua azkenean* jartzea zergatik gertatzen den azaltzen da. Gai teorikoagoa da hau, baina euskararen bereizgarri batzuk ongi azaltzen dituena.
- *Trantsitibo*, *adjektibo*, *adberbio*, *aldia* –eta ez *tempusa*–... Uste izan dugu egokia dela euskal gramatiken terminologia bestelako hizkuntzetako gramatiketan hedatuago dagoenera hurbiltzea.
- *Deklinabide* hitzaren ordez *Postposizio sistema* hautatu da. Hau ez da terminologia aldaketa bakarrik. Deklinabidea zer den nahiko modu argian dago onartua munduko hizkuntzalarien artean. Ez gara hemen bakarrik bizi. «Euskal deklinabide» deitu dugun horrek ez ditu ezaugarri horiek betetzen. Gramatikan azaltzen den bezala, beste sistema bat da.
- *Trantsitibitatea* eta *intransitibitatea* beste modu batera definitu dira, gainerako hizkuntzetan egiten den gisan. Hemen ere gauza bertsua gertatu da. Euskal gramatiketan aditz trantsitiboak eta intransitiboak bereizteko erabili izan diren irizpideak (laguntzailea nolakoa den, horrek erabakitzen du) ez dira egokiak (hizkuntzetan erabiltzen den irizpidea aditzaren argumentu edo sare tematikoarekin dago lotua).

- *Argumentuak* definitzen saiatu gara.
- *Adizki alokutiboa* xehekiago aurkezten da.
- *Perpaus osagarrien* atala beste modu batera egokitu da.
- *Izan, ukan, *edin, *ezan* aditzek biziki ongi islatzen dute euskararen aditz sistema, baina aurkezpenean hori guztia arintzen saiatu gara.
- Eranskinean ageri diren *Diskurtso markatzaileen* bi kapituluak guztiz berriak dira.
- *Determinatzaile mugatzaileen* artean *-a, -o, bat* eta *-ik* sartu ditugu.
- Lan luzea bada ere, ez da adizki taularik ageri.

Atal hau amaitzeko, gertaera kurioso bat aipatu nahi dut puntu honetan: asko eztabaidatu da batzordean *bat* zenbatzaileaz eta partitiboaz. Besteak beste, haien izaeraz, ea batzuetan artikulua ere badiren edo ez. Eta hala erabakirik sartu dira artikulua atalean. Bada, 1981ean idatzitako liburuxkan behatu nahi izan dut Lafitte zenak zer zioen honetaz, «*-a* artikulua atzizkia» baita han aurkezten zuen lanaren izenburua. Hasierakoa ekarriko dut hona, hitzez hitz: «Euskaraz berex ditzake lau artikulua: *-a; -o; bat* eta *-ik*».

Adibideak

Ez dira ematen aldi bakoitzean aipatzen diren adibideen iturriak: autorea nor den esaten da, ez besterik. Gramatikan ageri diren adibide gehienak, betiere % 95etik gora, non ez diren kideek zuzenean sortutakoak (hori gertatzen baita adibide arruntekin), gaur egun euskal testuen gainean kontsulta daitezkeen hiztegi eta corpus publikoetatik atera dira. Corpusetan daude bilduak gure tradizioko idazle nagusien testuak eta gaur egungo idazleen testuak ere, dela liburuetakoak, dela egunkarietakoak. Badira ere itzulpenak testu horietako batzuetan. Adibide bakoitzean jarri da, parentesi artean, nori dagokion euskal testu hori, bestelako azalpenik eman gabe, eta itzulpenen kasuan ere itzultzailearen izena bakarrik jarri da, hau da, euskal testuaren egilearena. Bibliografian ere ez dira liburu horiek sartu, zerrenda

ez luzatzeagatik. Baina corpusetan bildua ez den libururen batetik hartua baldin bada adibidea, orduan bai, erreferentzia bibliografikoetan jasoa da.

Hortaz, zehatzago esateko, adibide guztiak egun eskura ditugun OEHTik (batzuetan hango siglak erabili dira iturria aipatzean) eta corpusetatik hartuak dira: EHUko Euskara Institutuak argitaratu dituen corpusetatik (*Ereduzko Prosa Gaur*, EPG; *Corpus Historikoa*, CH; *Euskal Klasikoen Corpora*, EKC; *Egungo Testuen Corpora*, ETC; Goenkale, EUDIMA eta abar); Zientzia eta Teknologiaren Corpora; Euskaltzaindiaren Lexikoaren Behatokiaren corpora eta abar. Beraz, adibideak handik hartu dira.

Hasiera batean adibide guztiak eredu estandarrean emateko erabakia hartu zuen batzordeak, baina batzordekideak berehala ohartu ziren ezinezkoa zela, horrek irakurleari bideak errazten bazizkion ere, adibideek egilearen eta tokiko mintzoaren kolorea galtzeko arrisku handia baitzuten. Batzuetan, gainera, ia ezinezkoa zen batuan paratzea (pentsa, adibidez, bertso batzuek ari bagara). Baina bere horretan utziz gero ere beste arazo batzuk sortzen ziren: batzuetan horretara jarria ez denak ez lituzke aise ulertuko, eta irakurketan laguntza izan beharrean azkenean oztopo ere gerta litezke. Hori dela eta, aukera koherente osoa egiterik ez zenez, txostengile bakoitzari askatasuna eman zaio adibideak egokien ikusten zuen moduan testuan paratzeko. Axaleko aldagetak eginez bakarrik, jakina. Batzuek estandarera jo dute, oso-osoan ez bada ere, beste kasu batzuetan ortografia bakarrik batu da, eta txostenetan ez dira falta erdiko bidea hartu dutenak ere.

Geroaz zerbait

Urte luzeetako proiektuaren beste urrats bat besterik ez da lan hau. Hasieran aipatu dudan liburuxkaren lau egileak dagoeneko ez daude gure artean. Orain dela ia 40 urte Euskaltzaindiak sortu zuen batzorde hartatik Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Jose Antonio Mujika, Beñat Oiartzabal eta Pello Salaburu gelditzen dira batzordekide gisan. Alan King orain dela hila-bete batzuk zendu zen, gramatika hau aski aurreratua genuela. Eta urte horietan, pentsatzekoa denez, beste anitz izan dira etorri eta batzordea utzi dutenak. Denen izenak aipatu nahi ditut, alde edo moldez, jende askoren

lana baita hau, ez bakarrik gaurko egunean batzordea osatzen duten kideena. Gaur gogoan ditugu gure lankide diren edo izan diren guztiak:

Lino Akesolo (†)
 Patxi Altuna (†)
 Iñaki Amundarain
 Miren Azkarate
 Luis Baraiazarra
 Ane Berro
 Andolin Eguzkitza (†)
 Beatriz Fernandez
 Juan Garzia
 Patxi Goenaga
 Jean Haritschelhar (†)
 Nora Iriarte
 Alan King (†)
 Pierre Lafitte (†)
 Itziar Laka
 Joxe Mari Larrarte (†)
 Maria Pilar Lasarte
 Jesus Mari Makazaga
 Céline Mounole
 Jose Antonio Mujika
 Patxi Ondarra (†)
 Beñat Oyharçabal
 Paskual Rekalde
 Karnele Rotaetxe (†)
 Pello Salaburu
 Piarres Xarriton (†)

Geroari behatzen badiogu, ez da zalantzarik akademia baten zeregin nagusietakoa dela gramatika gaiak lantzea. Horretarako sortu zen Euskaltzaindia, eta hola bildu zen, espresuki, 1976ko estatutuetan ere, bere lehenbiziko artikulua lehenbiziko puntuan, xedeak zein dituen zehazten duenean: «Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea». Eta artikulua berean

aipatu dira hiztegia, arauak ematearen beharra eta filologiako eta hizkuntzaren inguruko ikerketak egitea.

Aurkezten dugun *Euskararen Gramatika* hau, hortaz, bete-bete sartzeko da Euskaltzaindiak definitutako zeregin nagusien artean. Gramatika batzordeak bete du agindua, eta lana gizarteari eta Euskaltzaindiari eskaini dio. Orain kritikak eta iritziak hartuko dira, eta horiek bildu eta integratu ondoren, Euskaltzaindiak erabaki beharko du lanarekin zer egin, hori ez baitagokio Batzordeari.

Mitxelena ere etorri izan zen inoiz hasierako bilera haietakoren batera. Mitxelenaren esanak beti dira kontuan hartzekoak, eta hemen bildu nahi dut orain berak halako batean esan zuen hura: «Gaia nahikoa bildu nuen, bai paperean eta bai *casette*-tan, baina gero, bilduak edo bildu ostekoak argitaratzerakoan, ez nuen oinarritzko martxa segitu».² Eta segidan argitu zuen zein den martxa hori:

Hau izaten baita, gehienetan, martxa hori: itaunketaren ondorioak (banan-banan edo, nolana ere den, tantaka eta dindika) artikulatu marduletan argitaratu ohi dira, xehetasunik ahaztu gabe, han-hemengo aldizkarietan. Orduan, oinarritzko puntuak bederen ongi finkaturik daudenean eta orduan bakarrik, jaso daitezke, labur eta trinko, obra jeneral bateko kapitulu gisa.

Nik, ordea, presak zirela eta osasuna (ongi ohartu ez banintzen ere artean) ongi ez zebilela, atzekoz aurrera atera nituen jendartera neure ahaleginen fruituak. Frantsesez, *brûler les étapes* deituko litzaioke nik egin nuenari, nahiz eta gero, halabeharren erruz edo, gaitzerrupean gorderik egon baldin bada ere munduari eskaini nahi nion argia.

Hori azpimarratu nahi dut, bada: gurdia ezin dela jarri idien aitzinean, baizik gibelean. Gaiak ongi landuak direnean bakarrik egiten dira laburpenak. Hemen eta mundu osoan.

Gramatika batzordeak bukatu du lan mardul hau: luzea, mila eta bostehun orrialdetik gora izango duena. Orain da garaia, hala nahi izanez gero,

² 1981, "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz", *Obras Completas VII*, 336.

horren laburpena idazten hasteko, oinarrizko puntu batzuk, Mitxelenak zioen gisan, ongi ez bada ere, lehen baino hobeki, gutxienez, finkaturik dardenean. Orain, ez lehenago. Hola egin dute inguruko hizkuntza guztiek.

Segur gaude, bestetik, hemengo materiala ere erabil daitekeela arau berriak lantzeko langai gisa, arau berririk eman behar baldin bada, noski.